

Abarrak

JON TORNER

Ezetz esaten ikasi zuen emakumea

Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi.
Nunila López Salamero eta Myriam Cameros Sierra.
(Itzulpena: Itziar de Blas eta Mikel Garmendia)
Txalaparta (2009).

MARI ZIPRIZTINEK kristalezko zapatak probatu zituen. Txiki geratzen zitzaizkion, baina estutu eta estutu aritu zen, hanka sartu zuen arte... saiatzeak merezi zuen, printzearekin ezkontzera zijoan eta!

Egun batean, ordea, “aski da” oihukatu zuen. Konturatu zen printzeek ez zutela salbatuko, ezta kamoiolari, disko jartzaile edota gozogileek ere. Konturatu zen zu salba zaitzakeen bakarra zu zeu zarela. Negar egin zuen, hutsik sentitu zen arte. Orain, bere barrena gauza politekin betetzea beste zereginik ez zuen. Baina lehenago printzea utzi zuen. Eta ez pentsa erraza denik. Hain da zaila, batzuetan bizpahiru printze gehiagorekin errepikatzen duzula.

Nunila López Salamero (Bartzelona, 1966) ipuin kontalariaren eta Myriam Cameros Sierra (Iruñea, 1978) ilustratzailearen *Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi* liburuak ironiaz apurtzen ditu ohiko ipuinetako ohiko topikoak.

Geure buruak maitatzen eta gustuko ez ditugun gauzen aurrean “aski da!” esaten ikasteko ipuina da. Guztia ez baita sinetsarazi nahi diguten bezalako. Emakumeak badu aske izaterik, zer-nola-norekin egin esaten diguten eskema zorrotzetatik kanpo. “Aski da izeneko maitagarria duela 20 urte agertu zitzaidan aurreneko, nire ezkontza baino bi egun lehenago, hiru hilabeteko nengoela, eta... salbatu egin ninduen!”, dio Nunila



Lopezek liburuaren amaieran. “Orduz geroztik bakarrrik eta zorionsu (ahal denean behintzat) bizi den ama naiz. Printzeek ez naiz fio, bizitza erdia pasa dudun arren bakarren baten bila”.

Bartzelonako taberna bateko barran ezagutu zuten elkar Lopezek eta Myriam Camerosok. “Zure ipuinentzako ilustrazio batzuk egingo ditut”, esan zion iruindarrak. “Guztiek esaten didate gauza bera”, erantzun zion Lopezek konbentzimendu handirik gabe. Handik gutxira, ordea, Camerosok bere marrazkiak erakutsi zizkion. Buru, begi, aho handiko Mari Zipriztinek txundituta laga zuen Lopez. Berak kontatzen zituen ipuinekin bete-betea egiten zuen bat aske izateko jaioa zen figura ero hark. Haren keinuak hain ziren adierazkorrak...

“*Thelma & Louise* bezalako da, baina pistolarik gabe, zoragarriri liberatzailea”. Montserrat Dominguez kazetariaren hitzak dira. Mari Zipriztinek ez du pistolarik, baina haren irribarre zabalak unibertso osoa jan dezake. Interneten ere badu bere mundu-txoa: lacenicientaqueriacomerperdices.com ■



BILBO

Urriaren 29tik azaroaren 14ra, Areatzan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!